


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2011KO URRIA

Euskal AEko industria jarduera % 0,1 hazi da 2011ko urrian

Aurreko hilabetearekin, 2011ko irailarekin alderatuta, Euskal AEko industria produkzioa % 1,1 jaitsi da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal AEko industria produkzioa % 0,1 hazi da 2011ko urrian, 2010eko hilabete berarekin alderatuta betiere. Aurreko hilabetearen, hau da, 2011ko irailaren aldean Euskal AEko industria produkzioa % 1,1 jaitsi da, estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

1. grafikoa. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea (IPI)

Industria sektore nagusienak sailkatu ostean, 2011ko urriko indizearen eta 2010eko urriko indizearen bilakaeren artean aldeak gertatu dira: Ekipamenduko Ondasunak % 10,4 igo dira, Tarteko Ondasunak % 1,6 jaitsi dira eta Kontsumo-Ondasunak guztira % 4,9 jaitsi dira, Kontsumo-Ondasun Iraunkorrek behera egin dutelako (% -14,0), Kontsumo-Ondasun Ez Iraunkorrek bezala (% -2,3). Energiak % 9,8 egin du behera.

2011ko urriko hilabete arteko aldakuntzak (2011ko irailaren aldean) ikur ezberdina izan du industriako sektore nagusietan. Ekipamenduko Ondasunak % 0,5 igo dira, Tarteko Ondasunek % 0,0 erregistratu dute, eta Energia % 0,3 jaitsi da. Kontsumo-Ondasunek guztira % 1,9 egin dute behera, Kontsumo-Ondasun Iraunkorrak % 3,6 jaitsi direlako eta Kontsumo-Ondasun Ez Iraunkorrek % 1,5 egin dutelako behera.

2011ko urrian (aurreko urteko hilabete beraren aldean) hazkunderik handienak izan dituzten sektore nagusiak *Garraio Materiala* eta *Makineria* eta *Ekipoa* izan dira, % 22,4 eta % 6,9ko tasekin, hurrenez hurren. Material eta Tresneria Elektrikoa % 4,6 igo da.

**1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea
Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38
sektorizazioa. Behin-behineko datuak**

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-4,2
09 - Kautxua eta plastikoak	3,2
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-1,6
13 - Makineria eta tresneria	6,9
14 - Garraio-materiala	22,4
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-1,9
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-2,0
12 - Material eta tresneria elektrikoa	4,6

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Kontrara, *Metalurgia eta produktu metalikoak* izeneko sektoreak urte batetik bestera % 4,2 egin du behera, *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* % 1,9 jaitsi da, eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* sektoreak urtetik urtera %1,6 egin du behera.

Lurraldeka, Industria Produkzioaren Indizearen urte batetik besterako urriko bilakaerak ikur positiboa izan du Araban (% 3,6ko igoera) eta Gipuzkoan (% 2,6ko igoera), baina bilakaera negatiboa izan da Bizkaian (% -4,3). Hilabete batetik besterako hazkunde-tasa, 2011ko iraileko datuekin alderatuta, negatiboa izan da hiru lurraldeotan: Bizkaian, % 1,8 jaitsi da eta Araban % 0,2 egin du behera; Gipuzkoan beherakada % 0,9koa izan da.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2011 urria (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	2011urr / 2010urr	M(2011urr) / M(2010urr) *	2011urr / 2011ira	2011ira / 2011abu
Indize orokorra				
Euskal AE	0,1	2,9	-1,1	-0,6
Araba/Álava	3,6	6,4	-0,2	-4,9
Bizkaia	-4,3	0,5	-1,8	-2,0
Gipuzkoa	2,6	3,6	-0,9	3,2
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-4,9	-2,0	-1,9	0,0
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-14,0	-8,9	-3,6	-8,4
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-2,3	0,1	-1,5	2,4
Ekipo-ondasunak	10,4	6,3	0,5	0,3
Bitarteko ondasunak	-1,6	4,5	0,0	-2,2
Energia	-9,8	-5,7	-0,3	-5,6

(*) 2011ko urtarritetik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2010eko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Argibide gehiago eskuratzeko:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](http://Euskal_Estatistika_Erakundea_Instituto_Vasco_de_Estadística)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua